



Hitzarmen kolektiboetan, haiei buruz hartutako akordioetan xedatutakoaren arabera, eta 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, EAEko Administrazioan indarrean sartuko direla errelebo-kontratu bat sinatzeari lotutako erretiro partziala eskuratzeko Gizarte Segurantzako araudiak ezartzen dituen baldintza berriak, onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Negoziazio Mahai Orokorraren Akordioaren arabera, Hezkuntza Sailak txandakako kontratuak formalizatuko ditu Hezkuntza Saileko lan-legepeko pertsonalaren hitzarmen kolektiboak aplikatu ahal zaien eta erretiro partziala hartu duten lan-legepeko langileak ordezkatzeko. Erretiro partziala hartzeko bete behar dira hurrengo:

BALDINTZAK

Enpresa eta erretiro partziala hartzen duten langileak ados jarriko dira erretiro partziala eta txandakako kontratua gauzatuko diren baldintzetan. Dena den, erretiro partziala eskatzen duen langileak bere eskaerari uko egin ahal izango du, beti ere errelebo-kontratu errelebistari esleitu baino lehen.

Gutxienezko adina eta kotizazioa:

Gertaera eragilearen urtea	Exijitutako adina, gertaera eragilearen unean kotizatutako aldien arabera		Exijitutako adina, gertaera eragilearen unean kotizatutako 33 urte izanez gero
2019	61 urte eta 8 hilabete	34 urte eta 9 hilabete edo gehiago	62 urte eta 4 hilabete
2020	61 urte eta 10 hilabete	35 urte edo gehiago	62 urte eta 8 hilabete

Aintzinasuna enpresan: 6 urtekoa jardun osoan, inongo etekinik gabe.

Lanaldi-murrizketa: Erretiro hori aukeratzen duen pertsonalak eskaeraren unean indarrean dagoen lanaldi osoaren % 100etik % 50era gutxituko du lanaldia.

Interesatuak arau erregulatzailerai eta lan-bizitzari buruzko txostena, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak emandakoa, aurkeztu beharko du, erretiro partzialaren eskubidea duen zehazteko.

IRAUPENA

Txandakako kontratuak erretiroa partzialak iraun bitartean iraungo du eta, betiere, iraungiko da erretiratu partzialak behin betiko erretiroa hartzen duen unean, edo bestela edozein egoera legalaren ondorioz kontratua iraungi dela ulertu beharra egon arte.